

Postala Alemaniatik



EGOERA: Karmelek Europan zehar bidaiatzeko asmoa du. Bisitaturiko herrialde bakoitzetik postal bat bidaliko dio Andoniri. Hemen duzu Alemaniatik bidalitakoa.

Kaixo, Andoni:

Iritsi naiz Alemaniara. Kolonian nago. Oso hiri polita da. Postaleko argazkian agertzen dena katedrala da. Ikusgarria benetan.

Hemen egongo naiz egun batzuetan, eta ondoren, Berlinera joateko asmoa daukat. Gaur, garagardotegi ospetsu batean afalduko dut, eta jarraian, balet emanaldi bat ikustera joango naiz Opernhaus Köln antzokira. Badakizu zenbat gustatzen zaidan dantza! Hurrengo postala Amsterdametik bidaliko dizut.

Besarkada bat!

Karmele



.....

.....

.....

.....

.....

.....

Esan hurrengo esaldiak **EGIA (E)** ala **GEZURRA (G)** diren.

- Andoniri berriro idazteko asmoa dauka Karmelek:
- Postaleko argazkian Berlineko katedrala agertzen da:
- Etxean goiz afaldu eta dantza ikustera doa Karmele:
- Karmeleri gustatu zaio Kolonia:
- Opernhaus Köln antzokian dantza egingo du:
- Karmele zuzenean joango da Koloniatik Amsterdamera: